



Txatbot teknologia merkatu bakar digitalera hurbiltzen du itzulpen automatiko sakonak

Web guneetatik app-etara egin genuen salto, eta orain app-etatik mundu digital osora zabaltzeko aukera ematen duten txatbot adimentsuetara, oztopo linguistikoak gaingituz. QTLeap ikerketa proiektuak aurrera egitea lortu du hurrengo belaunaldiko interakzio-kanalaren erabileran, itzulpen automatiko sakonari esker merkatu global digitala hartuko duena.

Ordenagailu pertsonalen etorrerarekin, erakundeek bere presentzia digitala bermatzeko web guneak garatu beharrezkin aurkitu ziren. Gerora, telefono adimendunekin, mundu digitalera iristeko kanal pribilegiatu bezala funtzionatzen duten aplikazioetan ardaztu zituzten ahaleginak. Adimen Artifizialean (AA) egindako ikerketa-aurrerapenek, erabiltzaileekin elkarrekintzan egoteko, hizkuntza zeinahi ere den, hurrengo pausua txatbotak edo elkarrizketarako robotak izango direla iradokitzen dute.

QTLeap proiektuak metodologia berritzaile bat ikertu eta garatu du Itzulpen Automatikorako (IA), elkarrekintza globalerako teknologia belaunaldi berri honi oztopo linguistikoak gaingitzen laguntzeko.

Emitzek erakusten dute proiektuan garatutako IA teknologiarekin, lagunduriko txatbot fidagarri bat merkatu berri batetarako hizkuntza berri batean martxan jartzerakoan, hizkuntza aldaketari dagozkion kostuak % 20a arte murriztu daitezkeela hizkuntzaren arabera.

Halaber, emaitzek erakusten dute proiektuan garatutako IA sakoneko teknikek artearen egoeran aurreratzea ekarri dutela. Ikusten da teknika hauek teknologia estandarra baino % 85a arteko probabilitatez lor dezaketela itzulpen hobe bat.

Egindako ikerketa hizkuntzaren prozesamendu sakonean datza. Hizkuntzak bere egitura sakonaren arabera prozesatzerakoan, alegia, esanahi mailan prozesatzerakoan, hizkuntzen arteko ezberdintasunak gutxitu egiten dira, itzulpena erraztuz.

QTLeap—Quality Translation by Deep Language Engineering lankidetzako ikerketa proiektu bat da Europar Batasunak finantzatutakoa eta zortzi partaidek osatutako partzuergo batek aurrera eramana: Adimen Artifizialerako Ikerketa Zentro Alemanak, Berlineko Humboldt Unibertsitateak, Bulgariako Zientzien Akademiak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Groningeneko Unibertsitateak, Lisboako Unibertsitateak, Pragako Charles Unibertsitateak eta Higher Functions enpresa portugaldarrak.

Informazio zabalagoa lortzeko eta harremanetarako, bisitatu:

Web gunea: <http://qt leap.eu>

Facebook: <https://www.facebook.com/qt leap>

Twitter: <https://twitter.com/QT Leap>

LinkedIn: https://www.linkedin.com/company/qt leap-project?trk=EML_cp-admin



QTLeap proiektuak diru-laguntza jaso du Europar Batasuneko Zazpigarren Esparru Programatik, ikerketarako, teknologiaren garapenerako eta erakusketarako 610516 zenbakidun laguntza-akordioen barruan.